

Xedapen Orokorrak

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

Zk-2212

AGINDUA, 2003ko apirilaren 8koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitza erosteko finantza-neurriei buruzko 2002ko urriaren 9ko Agindua aldatzen duena.

Etxebizitza erosteko finantza-neurriei buruzko 2002ko urriaren 9ko Aginduak behin betiko gehitu zuen beste laguntza-programa bat, erabilitako etxebizitza librearen eskaintza etxebizitzaren eskaintza orokorrean eta ezarri zuen etxebizitza-mota hori erosteko. Hori dela-eta, araubide orokorraz gain, aldi baterako araubide bat ezarri zen, Agindu hori indarrean sartu aurretik egindako erosketak ere jasotzeko aukera ematen zuena. Agindu horrek izan duen harrera kontuan hartuta, aldatzeko Agindu honen bitartez ahalik eta erosketa gehienei eman nahi zaie aukera, aldi horretan eginko salerosketetarako eskabideen epea luzatuz.

Bestalde, Agindu honek ezabatzen du fondo galdurako dirulaguntzak eskuratzeko aukera, edozein Herri Administrazioaren edo Erakunde Administrazioaren ondare publikokoak diren etxebizitzak eskualdatzean. Izan ere, ondare horiek gizarte-helburu jakina dute.

Ondorioz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako egitura organikoa ezartzen duen uztailaren 28ko 40/2002 Dekretuaren 4. artikuluan eta babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruen inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoaren arabera, ondokoa,

XEDATU DUT:

Lehenengo artikulua.— Etxebizitza erosteko finantza-neurriei buruzko 2002ko urriaren 9ko Aginduaren 4-2 artikuluari bigarren paragrafoa gehitzea, honela dioena:

«Agindu honen ondorioetarako ez dira hartuko erabilitako etxebizitza libretzat, baldin eta etxebizitzak eskualdatzen dituen bada Herri Administrazio edo Erakunde Administrazio bat, Herri Baltzuak, Erakunde Autonomiadunak eta aurreko administrazioetako baten partaidetza handiena duten merkataritza-sozietateak.»

Bigarren artikulua.— Lehenengo xedapen iragankorra berridaztea; honela geratuko da:

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

Nº-2212

ORDEN de 8 de abril de 2003, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se modifica la Orden de 9 de octubre de 2002, sobre medidas financieras para compra de vivienda.

La Orden de 9 de octubre de 2002, sobre medidas financieras para compra de vivienda incorporaba definitivamente la oferta de vivienda libre usada a la oferta general de vivienda estableciendo un nuevo programa de ayudas para su adquisición. Para ello se estableció, además del régimen general, un régimen transitorio que permitía dar cabida a operaciones de adquisición realizadas con anterioridad a la entrada en vigor de la citada Orden. Dada la acogida que ha tenido la dicha Orden se pretende, mediante la presente Orden modificatoria, dar cabida al mayor número de operaciones posibles ampliando el plazo de solicitud para las compraventas realizadas en período transitorio.

Por otra parte la presente Orden excluye la posibilidad de obtención de subvenciones a fondo perdido en las transmisiones de viviendas que constituyen patrimonio público de cualquier Administración Pública o Administración Institucional dado que dicho patrimonio está destinado a un fin social concreto.

En su virtud, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 del Decreto 40/2002 de 28 de julio, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales y en la disposición final primera del citado Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo,

DISPONGO:

Artículo primero.— Añadir al artículo 4-2 de la Orden de 9 de octubre de 2002, sobre medidas financieras para compra de vivienda, un segundo párrafo que quedará redactado del siguiente modo:

«No se considerarán viviendas libres usadas a los efectos de la presente Orden cuando su transmitente sea una Administración Pública o Administración Institucional, incluidas Sociedades Públicas y Organismos Autónomos o sociedades mercantiles participadas mayoritariamente por cualquiera de las anteriores.»

Artículo segundo.— Dar nueva redacción a la disposición transitoria primera que quedará redactada del siguiente modo:

«Lehenengo xedapen iragankorra.

1.— Etxebizitza-eskuraketek jaso ahal izango dituzte erabilitako etxebizitza librea erosteko Agindu honetan jasotako diru-laguntzak, baldin eta ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta 2002ko urtarrilaren 1etik 2003ko urtarrilaren 31ra bitartean eskritura publikoan gauzatu badira.

2.— 2003ko apirilaren 30era arte egin ahal izango dira xedapen iragankor honetan ezarritakoaren arabera eginiko eskaerak.

3.— Erabilitako etxebizitza librea erosteko laguntzak eskatzeko espediente guztiak ofizioz berrikusiko dira, baldin eta xedapen honen 1. eta 2. idatz-zatietako kasuren batean badaude eta ezetsi badira.»

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko apirilaren 8a.

Etxebizitza ega Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Zk-2213

IRAGARKIA, Herrilan Zuzendaritzan bideak zaintzeko eta mantentzeko zerbitzuko buruaren lanpostua izendapen askez betetzeko deialdiari buruzkoa.

2003ko apirilaren 4ko Arabako Aldizkari Ofizialean (40 zk.) Herrilan Zuzendaritzan bideak zaintzeko eta mantentzeko zerbitzuko buruaren lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia argitaratu zen.

Interesatuak Lehendakariitzako Foru Diputatuari zuzendu beharko dizkiote eskabideak. Eskabide horiek Arabako Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan aurreikusitako moduetatik edozein erabili ahal izango da. Horretara-

«Disposición Transitoria Primera.

1.— Podrán acceder a las subvenciones contempladas en la presente Orden para la compra de vivienda libre usada aquellas adquisiciones de vivienda que se hayan elevado a escritura pública desde el 1 de enero de 2002 hasta el 31 de enero de 2003.

2.— Las solicitudes que se acojan a lo dispuesto en la presente disposición transitoria podrán formularse hasta el 30 de abril de 2003.

3.— Serán revisados de oficio todos aquellos expedientes de solicitud de ayudas a la compra de vivienda libre usada que hubieran resultado desestimadas encontrándose en alguno de los supuestos previstos en apartado 1 y 2 de la presente disposición transitoria.»

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de abril de 2003.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Nº-2213

ANUNCIO relativo a la convocatoria para la provisión, por el sistema de libre designación, del puesto de Jefe de Servicio de Conservación y Explotación de la Dirección de Obras Públicas.

En el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava n.º 40 de 4 de abril de 2003, se publica la convocatoria para la provisión, por el sistema de libre designación, del puesto de Jefe del Servicio de Conservación y Explotación de la Dirección de Obras Públicas.

Los interesados deberán dirigir sus solicitudes al Ilmo. Sr. Diputado Foral de Presidencia y las presentarán en el Registro General de la Diputación Foral de Álava, o por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en el plazo